

## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Hiztegiaren lanketa



## - Oihana bazterrean otsoa egoten da

- Arropen bingo-jolasa

#### Helburuak

- Arropen hiztegia ikastea.
- Arropen hiztegi berria entzutea eta horretara ohitzea, aurrerago, eurek ekoitzi ahal izateko.

#### Prozedura

- Ume bakoitzak bere kartoia edukiko du eta hezitzaileak fitxaz betetako poltsa bat.
- Hezitzaileak fitxa bat aukeratu eta atera ondoren, erakutsi barik, hor ikusten duena izendatu.
- Umeez euren kartoietan entzundako arropa agertzen den ikusi. Hala bada, irudi hori ezabatu, estali...
- Kartoietan dituzten irudi guztiak estalitakoan, BINGO esan. Lehenengo esaten duena, irabazle.

#### Oharra

- Ekintza hau behin baino gehiagotan erabil daiteke, eta beti ere, umeen mailaren arabera eta gaiaren une ezberdinetan txertatuz.